Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2000

EBAZPENA, 2011ko otsailaren 28koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, Kanpo Harremanetarako eremuan pertsonak espezializatzeko bekak luzatzeko dena, beka horiek 2010ean esleitu ziren.

Irailaren 30eko 221/2003 Dekretuan –Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak arautzeko denean, hain zuzen– eta beka horien deialdia egiteko 2009ko azaroaren 12ko Ebazpenean ezarrita dagoenarekin bat etorriz, Kanpo Harremanetarako eremuan pertsonak espezializatzeko bekak esleitu ziren, 2010eko martxoaren 1eko Ebazpenaren bidez esleitu ere. Beka horiek hamabi hilabeteko iraupena dute. 2010eko martxoaren 11ko eta 17ko Ebazpenen bidez, argitara eman zen bi bekari ukatu izana, eta beka horiek ordezkoei esleitu zitzaizkien, aurrekoei geratzen zitzaien denbora eta diru-kopuruarekin esleitu ere.

221/2003 Dekretuaren 3. artikulua oinarri hartuta, beken onuradun batzuk luzapena eskatu dute, horretako bidezko txostena erantsiz. Eskaerak kontuan hartuta, irailaren 30eko 221/2003ko Dekretuaren 7. artikuluan ezarritako Aukeraketa Batzordeak, esleitutako bekak beste hamabi hilabetetan luzatzeko proposamena aurkeztu du. Batzorde horretako kideak deialdiaren ebazpenean izendatu ziren.

Horregatik guztiarengatik, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Kanpo Harremanetarako eremuan espezializatzeko bekak beste hamabi hilabetez luzatzea eranskinean agertzen diren pertsonei. Prestakuntza lekua ere azaldu da eranskinean.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hara hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 28a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
GUILLERMO ECHENIQUE GONZÁLEZ.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

2000

RESOLUCIÓN de 28 de febrero de 2011, del Secretario General de Acción Exterior, por la que se prorrogan las becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores, adjudicadas en el 2010.

De conformidad con lo establecido en el Decreto 221/2003, de 30 de septiembre, por el que se regulan becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores y de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior, y en la Resolución de 12 de noviembre de 2009, de convocatoria de las mismas, por Resolución de 1 de marzo de 2010, se adjudicaron las becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores. Por Resoluciones de 11 y 17 de marzo de 2010 se hicieron públicas dos renuncias a dichas becas, adjudicándose a las personas suplentes, por el tiempo e importe que restaba a las personas renunciantes.

En base al artículo 3 del Decreto 221/2003, varias de las personas adjudicatarias de las becas, han solicitado la prórroga adjuntando los Informes procedentes. En vista de la solicitud, la Comisión de Selección designada por el artículo 7 del Decreto 221/2003, de 30 de septiembre, cuyos miembros se nombran por la Resolución de convocatoria, ha elevado la correspondiente propuesta de prórroga de las becas para otros doce meses.

Por todo lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Prorrogar las becas de especialización en el ámbito de las Relaciones Exteriores, por otros doce meses, a las personas relacionadas en el anexo con indicación del destino de la formación.

Segundo.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición, ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2011.

El Secretario General de Acción Exterior,
GUILLERMO ECHENIQUE GONZÁLEZ.

ERASKINA/*ANEXO*

Izen-abizenak *Nombre y apellidos*	Lekua *Destino*
José Luis Eguiluz López	Kanpo Harremanetarako zuzendaritza / *Dirección de Relaciones Exteriores*
Lorena Zabala Juanicotena	Argentinako ordezkaritza / *Delegación de Argentina*
Joana Zufiaur Goñi	Estatu Batuetako ordezkaritza / *Delegación de Estados Unidos*
Julia Grisaleña Albéniz	Mexikoko ordezkaritza / *Delegación de México*
Alexander Bilbao Goxencia	Venezuelako ordezkaritza / *Delegación de Venezuela*